



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

**POLITIKA OROKORRARI BURUZKO
URTEKO ADIERAZPENA
2024**

1.- Donostia, 2030 urtera begiraten duen Hiria.

Gaurko politika orokorreko Osoko Bilkura honek gure Hiriarri buruzko hausnarketa egiteko eta partekatzeko aukera eskaintzen digu. 2030 urteari begiraten dioen Hiria da gurea. Egoera orokor konplexu baten testuinguruan bizi gara, zalantzaz beteriko etorkizuna dugu gure aurrean. Zalantzaz beteriko egoera konplexu hori kontuan hartuta, gure ardura da Udal gisa etorkizuneko Hiria irudikatzen jakitea, eta ahal dugun heinean, gure hiritarrei ziurtasunak eskaintzea ere.

Ez da nire asmoa politika orokorreko adierazpen honen bitartez “idilikoa” den Hiria irudikatzea, guztiok kezkatzen gaituzten gai nagusiei ekitea baizik, guztion ardura baita horiei erantzunak ematerakoan asmatzea.

Baina tira, 2030eko Hiria irudikatzeko saio honetan ezinbestekoa zaigu abiapuntua zein den garbi izatea, distortsionatuak izan daitezkeen ikuspegi subjektiboez haratago, garrantzitsua baita datuetan oinarritzen den argazkia konpartitzea.

Eta egin beharko genukeen lehen galdera hauxe litzateke:

Nola / non gaude?

2024. urte honetako Donostiak, arazoak arazo, abiapuntu paregabea eskaintzen digu etorkizunera begira. Askotan aipatu dudana da berriro gaurkoan errepikatzen noana, baina ondo islatzen du datu horrek gure ingurunearekin alderatua Donostiak duen indarra. Estatu mailan langabezia tasarik baxuena eta errenta maila altuena duen Hiriburua da Donostia. Horrek adierazten du gure Hiriak aberastasuna sortzeko gaitasun handia duela. Hori ez ba abiapuntu makala aurrean dugunari ekiterako orduan.

Aurreko ekitaldiaren datuei erreparatzen badiegu, Barne Produktu Gordin erreala %5,5 igo zen Donostian aurreko urtearekin alderatuta. Gure inguruarekin alderatuta nabarmen gehiago. Eta gainera, batzuek uste dezaketenen kontra, hazkunde horren arduradun nagusienak ezagutzen intentsiboak diren zerbitzuak dira. Geroz eta ikerlari gehiago hartzen dituzten enpresez ari gara. Azken urteotan bilakaera nabarmena izan du Donostiak jarduera mota hauei dagokienean. Berrikuntzaren inguruan jarduten den COTEC Fundazioak, 2023 urtean egindako azterketan dio Donostia dela Estatu osoan I+G esparruan intentsitate handiena duen hiriburua. Beraz gaur Donostiaz hitz egiten dugunean, Zientzia eta ezagutza Hiria garela esatea errealitate baten deskribapena da, zalantzarik gabe.

Hiriak beste datu batzuek ere eskaintzen dizkigu gaurkoan. Adibidez, historian lehen aldiz 189.000 biztanleen langa gainditu duela. Donostiak gaur, inoiz izan duen biztanle kopururik altuena dauka, hori bai, baita izan duen biztanlegorik zaharkituena ere. Beste urte batez, hirira heltzen diren pertsona migratzaileak dira gure adin media jaisten laguntzen dutenak, eta baita ere, lan merkatuan dagoen eskariari neurri handi batetan erantzuten diotenak.

Datuak xehetasun gehiagorekin aztertu ezker, badira zuzentzen jarraitu beharreko desberdintasunak, auzo guztiek ez dituztelako datu berdinak, gazteenek edo emakumezkoek ez dituztelako gainontzekoen lan baldintza berdinak, etab. Baina horiei aurre egiteko daukagun argazki orokorrak aukera asko baliatzen dizkigulakoan nago. Azken finean aberastasuna banatzeko, aberastasuna sortzeko gaitasuna behar beharrezkoa baita, eta gaur egun, Donostiak badauka hori.

Sarrera honetan gehiegizko datu zaparrada batetan erori gabe, ba dira aipatu nahiko nituzkeen beste datu pare bat, aurrerago jorratuko ditugun zenbait gairekin bat egiteko lagungarri izan daitezkeenak.

Donostia es la tercera Ciudad del Estado con la mayor densidad empresarial. Únicamente superada por Barcelona y Madrid. Tenemos un ratio de 80 empresas por cada 1.000 habitantes frente a las 101 de Barcelona y las 85 de Madrid, muy por delante Bilbao, que es la siguiente en el ranking con 73.

La hostelería y el comercio son dos de los grandes motores del empleo en la Ciudad. De hecho, uno de cada tres contratos de trabajo que se han firmado en la Ciudad a lo largo del año 2023 lo ha sido en estos sectores, creciendo además la contratación indefinida en ambos.

Un último dato que considero de interés es el de la densidad comercial y hostelera que tiene nuestra Ciudad, prácticamente es de 25 establecimientos por mil habitantes. Una cifra mas que considerable, tan sólo superada entre las Capitales de todo el estado por Barcelona con 27.

He querido mencionar estos datos referidos al comercio y a la hostelería, porque son grandes motores de empleo que creo debemos cuidar, y porque muchas veces no somos conscientes de que estos datos serían sencillamente imposibles si Donostia no tuviera capacidad de atracción, algo sobre lo que debatimos mucho, y me parece bien, pero creo que deberíamos hacerlo sin perder de vista las implicaciones que ello tiene sobre el empleo y la generación de riqueza en nuestra Ciudad.

Honaino gaurkoan azaldu nahi ditudan datuen zerrenda. Gaurko agerraldian gehiago azalduko dira, baina uste dut testuinguru orokor bat eskaintzeko hauek baliagarri izan daitezkeela.

Baina datuetaz haratago,

Nola ikusten dugu geure burua?

Donostiako estrategia bulegoak aurtengoan hiritarren perzepzioen inguruko galdeketa egin du. Guztiok ikusi eta partekatu ahal izan dugu hori, eta baita Europako beste Hiriekin eta aurreko urteetan egindako galdetegiarekin alderatu.

Luzea litzateke honetaz aritzea, eta horregatik, bertan azaltzen diren datu esanguratsuenak aipatu nahiko nituzke bakarrik, gure Hiritarren iritzi eta kezkek ezagutzeko tresna bikaina delakoan. Eta ez hori bakarrik, tresna hau, Udal Gobernuarentzat eta oro har Udalarentzat tresna garrantzitsua delako, gure lana zertara bideratu behar dugun esaten digulako. Bertan azaltzen direnak Hiriaren erronka nagusi bezala hartzen ditut nik hurrengo urteetarako.

Galdeketak oro har esaten digu donostiarrak gustura gaudela gure Hirian, baina hona hemen azpimarratzen dituen kezka-erronka nagusiak:

2017ko galdetegiarekin alderatzen badugu, ezinbestekoa da aipatzea balorazioetan beheraka handiena egin duena Osasun zerbitzua izan dela. Badakigu hori ez dela berez Udalak eskaintzen duen zerbitzua, baina zalantzarik gabe kontutan hartu beharreko datua dela iruditzen zait, eta elkarlanean Jaurilaritzarekin batera gure hiritarrendandik erantzun bat eskatzen duena.

Horretaz gain iruditzen zait hiru direla aipamen berezia merezi duten gaiak: Etxebizitza, Segurtasuna eta turismoa.

Bakoitzak ba ditu bere nabardurak, baina garbi dago hiruek gure arreta eskatzen dutela Udal egin beharreko kudeaketan.

Etxebizitza lortzeko aukerak. Garbi ikusten da beste Hiri batzuekin alderatuta kezka handiagoa dela hau Donostian. Baina egia da ere azken 15 urte hauetan egindako galdeketetan beti kezka nagusi bezala azaldu izan dela. Ez da gauza berria, kezkei dagokionean. Perzepzioz haratago bagoaz, eta datuak ikusten baditugu, argi dago betidanik gure hiriak izan duen arazo bati orain testuinguru orokor okerragoa gehitzen zaiola. Ikustea besterik ez dago gaiak Estatu mailan

eta Europa mailan hartu duen garrantzia. Zalantzarik gabe, esku artean dugun erronketako bat arazo horri erantzuna ematea da une honetan.

Segurtasuna. Hiritarrek argi adierazten digute honen inguruko kezka. Datuek eta perzepzioek ez dute zertan berdina esan beharrik, baina ukaezina da gai honek lehen ez zuen bezalako garrantzia hartu duela Donostian, bai beste Hiri batzuekin alderatzen badugu eta baita ere iraganean genuen iritziarekin alderatzen badugu. Eta honek ere erantzunak ematea eskatzen digu, nahiz eta jakin erantzun horren elementu guztiak ez daudela gure esku.

Y finalmente el turismo, o mejor dicho, el turismo excesivo. Un tema que avanza posiciones con respecto a percepción como problema si lo comparamos con años anteriores. Pero también me gustaría detenerme en el resultado que obtienen dos preguntas cruzadas sobre esta cuestión, y es que el 79,2% de nuestros conciudadanos manifiestan que el turismo es importante para la Ciudad y un 82,2% que se ha llegado al límite de atracción. Dicho de otro modo, el turismo es una actividad que consideramos importante (y que por lo tanto debemos cuidar), pero no deseamos caer en el exceso. Creo que frente a determinadas actitudes y comportamientos que vemos entre nosotros ese es un dato relevante, que debe guiar nuestra actuación en esta materia.

2.- 2030 urtera begira eraiki nahi dugun Donostia

Zeintzuk dira gure Hiriak egiten dituen apustu nagusiak?

Askok dira Hiri bezala etorkizunera begira egin ditzakegun apustuak, gaurkoan utziko didazue ordea horietako bakan batzuetan atentzioa jartzen, beste batzuei garrantzia kendu gabe, uste dudalako arlo hauetan hurrengo urteetan egiten duguna benetan erabakigarria izango delako Donostiaren norabidean,

Donostia, Zientziaren eta Ezagutzaren Hiria

Sarreran aipatu ditudan datuak aztertuta, etorkizunera begira esku artean dugun apustu garrantzitsuenetakoa Donostia Zientziaren eta Ezagutzaren Hiria izaten jarraitzea eta garatzea delakoan nago. Azken urteotan Hiria abiadura hartu du esparru honetan. Adibidez, azken sei urteetan gure Hirian I+Gari lotutako enpleguak %32 egin du gora. Gure inguruneak duen bilakaerarekin alderatua nabarmen gehiago. Donostian, I+G jardueretan egiten den inbertsioa gorantzako joera azkarra hartu du azken bost urte hauetan, urtero bi dezimal baino gehiago dituzten hazkundeekin. Bioteknologien arloan eman den gorakada bereziki deigarria delarik.

Hori guztia faktore askori esker gertatzen ari da, Erakunde eta eragile askoren elkarlanari esker. Utziko didazue besterik ez bada horietako batzuek aipatzen, horietan Udal Gobernu honen apustu garbiak zerikusi zuzena izan duelako.

Mubil Eskusaitzetan, Donostia kokatzea. Aldundiarekin adostasunera iritxi ginen eta horri esker elektromugikortasunaren poloa donostian daukagu.

Viralgenek bere planta Miramonen eraikitzea. Gobernu honek bultzatutako planeamendu aldaketari esker, gaur errealitate bat da eta Donostia biozientzien esparruan erreferente izaten lagundu du.

DIPC handitzea. Udalak lagatako lurretan DIPCren handitzea errealitatea izango da laister.

Ordenagailu kuantikoa donostiara ekartzea. Aldundirarekin eta Jaurlaritzarekin elkarlanean, azkenean munduan dauden 6 ordenagailu kuantikoetatik bat Donostian kokatzea lortu da. Eraikina ziztu bizian doa gora.

Protonterapia makina donostiara ekartzea, Osasun Hiriaren eraldaketa horren eskutik gauzatu. Osasun sailarekin elkarlanean protonterapia makina Donostiara ekartzea lortu da. Makina kokatzeko eraikin berriaren eraikuntza lanak hasiak dira. Etorkizun hurbilean gainera, Osasun Hiriaren birmoldaketa osoa ezagutuko dugu, kanpo kontsulten eraikin berriaren eskutik.

Talent Housearen ondoren EKINN proiektua aurrera eramatea, talentua erakartzeko eta bertan gelditzeko apustu gisa.

GOE Donostian egotea. BCCekin, Jaurlaritzarekin eta Aldundiarekin elkarlanean Nafarroa Hiribidean eraikitzen ari da GOEren egoitza izango den eraikin berria.

Hauek dira azken urteotan egindako apustuen zenbait adibide, Donostia, gero eta gehiago Zientzia eta Ezagutzaren Hiri bilakatzen lagundu dutenak.

Y de cara a futuro esta es una apuesta que sin duda Donostia debe mantener. Ese es el motivo por el que en este momento estamos trabajando intensamente con el Gobierno Vasco, y concretamente con el parque tecnológico para sacar adelante el proyecto de ampliación del mismo en Illunbe. Dicha ampliación permitirá la implantación en Donostia de nuevas empresas tecnológicas de primer orden. Pero además, dará inicio a la tan ansiada regeneración de Illunbe, en la que también se contempla la conversión de la plaza de toros en un pabellón multiusos con la colaboración de la Diputación Foral y el Gobierno Vasco. En estos momentos se está redactando ya el anteproyecto de dicho pabellón.

Mugikortasun eredu berria

Si existe algún apartado en el que la Ciudad necesitaba dar un salto cualitativo y cuantitativo ese ha sido el de la movilidad. Si observamos el reparto modal y el peso de los diversos modos de transporte en Donostia, constataremos que existe margen de mejora y ampliación de la oferta transporte público. Este Gobierno ha hecho una clara y fuerte apuesta por el transporte ferroviario, como modo de transporte mas sostenible de cara a futuro.

Las obras de la pasante del topo por Donostia están ya muy avanzadas. Después de superar momentos de dificultad en la excavación por el centro. Durante los próximos meses iremos viendo como se inician las tan esperadas reurbanizaciones de la calle Easo y la calle San Martín, poniendo fin a unas afecciones de obra que han durado mas tiempo del deseado.

Egia da Hirian egiten ari diren zenbait lanek eragozpenak sortu dituztela, baina horietako asko azken fasean sartzen ari dira, eta amaitutakoan emaitzaz gozatzeko aukera izango dugu.

Anoeta Estadioaren aurrekaldean egiten ari diren lanek Anoetan geltoki handiago bat izatea ekarriko du. Lan hauek, ezerosoak izanda ere, behar beharrezkoak dira Topoak duen erabiltzaile kopuruen igoerari erantzun egokia eskaintzeko.

Altza – Galtzaraborda zatia ere azken txanpan sartu da, eta horrek, Pasai Antxo eta Donostia bera eraldatzeko aukera emango dute, egun airetik doan trenbidea desagertaraziz. Baina ez hori bakarrik, trazatu berri honek Altzako geltokia pasokoa izatea ekarriko du, bertan eskaintzen den zerbitzuaren maiztasuna biderkatu egingo delarik.

Aurrera doa ere Usurbil eta Orio artean Aginagako tunel berria. Agian honetaz ez dugu gure artean askorik hitz egin, baina lan hauek ere puzlea osatzen duen beste pieza garrantzitsua dira, hauei esker kostarekin lotzen gaituen zerbitzua azkartu egingo delako eta gainera, maiztasuna bikoiztu egingo delako.

Topoaren proiektuak Hiri bezala jauzi handi bat ematen lagunduko gaituelakoan nago. Ikuspegi lokalista gainditu eta gure Hiri metropoli batean kokatzen duelako. Beti defendatu dut Topoaren proiektua ez genuela bakarrik Donostiako proiektu gisa ikusi behar, askoz eskala handiagoa duen proiektu bezala baizik. Donostiak duen mugikortasun eskaria ez delako Hirira mugatzen, are gehiago, badakigulako eskariaren

parterik handiena gure inguru hurbilenak sortzen duela. Eta topoa horri erantzuna ematera dator.

Proiektu honen hurrengo pieza Loiolako Erriberako aldageltokia da. Proiektua idazten ari da une honetan. Espero dezagun ahalik eta azkarren errealitate izatea hau ere. Gainera, ordurako Renferenak diren aldirikoen eskualdatzea eman bada, eta Eusko Jaurlaritzak behar bezalako zerbitzua eskaintzea lortzen badu, gure inguruarekin lotura eskainiko duen trenbide sarea benetan indartsua izango da.

Azpiegitura honi dagokionean, Martuteneko geltokia aipatu nahiko nuke. Honekin ere lanean dihardugu. Garraio Estatu Idazkariarekin izandako bileraren ostean, urte amaiera baino lehen Martuteneko geltokia lekuz aldatzeko azterketaren emaitza izango genuela adierazi zitzaigun. Leku aldaketa honek geltokia auzoarekiko zentratuago utziko luke eta oinezkoentzat Barkaiztegi bidea berreskuratzea lortuko luke. Bestalde, gaur egungo Barkaiztegiko bidean zubi berria egin dadin borrokan jarraitzen dugu ADIFekin.

Mugikortasunean hurrengo urteetan datorkigun beste aldaketa Abiadura Handiko Trenarena izango da. Azpiegitura honek izan duen atzerapena onartezina da, eta horrek gure Hiriri eragiten dio, kontuan izanda Aireportuak dituen mugak gaindiezinak direla eta trena dela distantzia luzeetan daukagun aukera garbiena. Atotxako geltoki berria eraikitzekeo lanak aurreratuta daude. Udal Gobernu honek, Tabakaleraren aurrean sortuko den plaza berria landaredia izango duen parke izateko apustu garbia egin du. Horretan lanean ari gara, proiektu hori definitzeko.

Geltokiaz haratago, benetan garrantzitsuena dena da trena lehenbailehen Donostiara iristea, bai hegoaldetik eta baita iparraldetik ere.

Trenbide azpiegituren inguruan Donostiatik mugara bitartean hirugarren erreiarren proiektuak aipamen berezia merezi du. Ez da erraza, Abiadura Handiko Trenaren proiektuarekin gertatzen zaigun bezala lan hauek noiz amaitu daitezkeen asmatzea, baina badirudi laster errealitatea izango dela. Horrek aukera paregabea irekiko digu iparraldearekin lotura estutzeko, eta Donostiatik Baionara bitarteko Euro-Hiria eraikitzekeo.

Hablando de transporte ferroviario no quisiera dejar pasar un tema que está de “rabiosa actualidad”, el de la conexión de la Y vasca con Navarra.

Esta es una cuestión clave desde el punto de vista de la vertebración del territorio. No se trata de una disputa “local”. Es mucho mas que eso. Tampoco es una cuestión exclusivamente de coste económico. Las apuestas que

vertebran un territorio se hacen teniendo en cuenta muchos mas elementos, y mucho mas cuando se abordan soluciones que tienen una proyección temporal de mas de 100 años.

Por poner un ejemplo que todos entenderíamos: ¿Alguien daría por bueno hoy día que la conexión viaria Donostia-Iruña se hiciera pasando por Gasteiz, y que por lo tanto no se hubiera hecho la Autovía de Leizaran?

Entre las muchas cosas que hemos podido escuchar en relación con esta cuestión está la comparativa que ha hecho el propio Secretario de Estado, diciendo que la conexión de la Alta Velocidad de Donostia a Iruña pasando por Gasteiz reducirá la duración del actual viaje en tren entre Donostia e Iruña. No es difícil. Pero lo que no dice es que el tiempo de viaje requerido es superior al tiempo de viaje por carretera. Dicho de otro modo, el tren no será competitivo con respecto a la carretera.

Pero además de todo lo dicho, desde el punto de vista de Donostia y de Gipuzkoa, la opción vía Gasteiz hace que se complique la salida al mediterraneo, una conexión que considero es irrenunciable como País.

Gai honekin amaitzeko beraz, erabaki garrantzitsu baten aurrean gaude. Garrantzitsua da Hiri bezala, baina batez ere garrantzitsua da lurralde egituraketaren ikuspegitik. Asko dago hemen jokoan eta urte askotarako izango da gainera.

Mugikortasunari eskainitako tarte honetan ez nituzke aipamenik gabe utzi nahi beste garraio moduak. Gure apustua iraunkortasunaren aldeko apustua izanik, garraio publikoaren aldeko apustu garbia baita. Hurrengo urteetan autobus bideko garraio publikoa moldatzea egokituko zaigu, gaur egun eskaini ahal ez ditugun zerbitzuak eskainiaz. Hori da hain zuzen ere DBUSEko Administrazio Kontseiluan orain egun gutxi ezagutzera eman zen Plan Estrategikoaren helburua. Ondorio garbi batekin: Topoa martxan jartzeak ez duela Dbusek zerbitzu gutxiago eskaintzea ekarriko, ezberdinak baizik. Eta hori, adostasunez lantzen joan beharreko gaia izango da.

Gure apustua ere ba da Donostian bizikleta sustatzea, eta gure konpromisoa da orain arte jarraitu dugun lan ildoan indartzea, bidegorri sarea hobetuz, alokairuko zerbitzu lehiakorra eskeinuz eta Hirian zehar bizikletak modu seguruan gordetzeko aukerak baliatuz.

Mugikortasunaz ari garen honetan, eta gaiak duen egunerokotasuna kontuan hartuta Donostian taxi zerbitzuak bizi duen egoerari aipamena egin nahiko nioke, zerbitzu publikoa de heinean. Guztiok jakina da zein arazo ditugun eskaintzen den zerbitzuarekin. Hori guztiok sufritzen dugun egoera

da. Hilabeteetan zehar gure lana, inguruko herriekin zonalde berezia sortzen saiatzea izan da, zerbitzua hobetu dezakeelakoan. Hori horrela ez bada, edo zonaldea sortzeko arazoak sortzen badira, lizentzia berriak atera beharko dira zerbitzua bermatzeko. Garbi daukagu egoera honek erantzuna eskatzen duela.

Gizarte kohesioa

Gure Hiriak azken urteotan, beste Hiri batzuekin alderatzen badugu behintzat, gizarte kohesio maila altuagoak mantendu ahal izan ditu. Egia da auzoen artean badirela ezberdintasunak adierazle ezberdinei erreparatzen badiogu, baina ezberdintasun horiek ez dira beste hantzeko lekuetan ematen diren bezain muturrekoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak aldian aldian egiten duen Pobreziari eta Giza Bazterkeriari buruzko inkestan argi adierazten da gure lurraldea gero eta desberdintasun gutxiago dituen eta kohesionatuagoa den lurraldea dela. Eta gainera, aurtengoan argitaratu den inkestari erreparatzen badiogu, bertan ikusten da GINI deritzan indizeak lau puntu behera egin duela azken urteotan. Eta indize honetan puntuak behera egiteak adierazten du errenta ezberdintasunak behera egin dutela.

Datu orokorra ona izanik, ba dugu ordea hobetzeko zer egina. Eta ez da lan erraza, batetik, gure inguruak une honetan adierazten duen joera aurkakoa delako, eta beraz, korrontearen aurka arraun egitea egokituko zaigu. Eta bestetik, txostenean bertan azaltzen denaren arabera, pobrezia eta gizarte bazterkeria egoerek kronifikatzeko joera daukatelako.

Apustu gisa aipatzen dudan lan ildo honek ikuspegi zabala izatea eskatzen digu, eta hainbat izango dira landu eta zaindu beharreko gauzak. Donostiak Hiri orekatua izan behar du, eta horrek, auzo ezberdinek eskaintzen duten bizitza kalitatea eta zerbitzuak ahalik eta hantzekoenak izan daitezela eskatzen du. Badakigu abiapuntua ez dela berdina auzo guztietan, eta horrek eskatzen du Udalak egiten duen esfortzurik handiena bereziki zonalde batzuetan egitea. Askotan aipatu izan dut, egia delako azken urte hauetan Udalak esfortzurik handienak ekialdean eta Urumea ibarrean egin dituela. Eta etorkizunean ere horrela izaten jarraitu behar du.

Etorkizunean gizarte kohesio maila altua izaten jarraitzeko beste gakoetako bat immigrazioak dakarkigun errealitate berriari erantzun egokia ematean datza. Hiria azken urte hauetan asko aldatzen ari da aspektu honetan, gaur egun Donostiak jatorri oso ezberdinekoak diren donostiarrak biltzen ditu eta horrek elkarren arteko ezagutza eta bizikidetzeta lantzerantz derrigortzen gaitu.

Zalantzarik gabe, Gizarte kohesioa indartzeko unean Udalak eskaintzen dituen Gizarte zerbitzuak ezinbesteko tresna dira, egoera zaurgarrienean daudenei harreta eskaintzeko batez ere. Bihar bertan aurkeztuko den aurrekontu proiektuan beste behin ikusi ahal izango dugu Udal Gobernu honek, ditugun gizarte zerbitzuak indartzeko apustua egiten jarraitzen duela.

Si analizamos la evolución del presupuesto municipal a lo largo de los últimos 9 ejercicios en lo que a servicios sociales se refiere, podremos constatar que la apuesta realizada por los tres Gobiernos Municipales que me ha correspondido presidir es nítida. Si analizamos el gasto por habitante del Ayuntamiento de Donostia en esta materia, 172,19 euros/habitante en 2023, veremos que es de los mas altos de todos los municipios de Gipuzkoa. Donostia cumple con la cartera de servicios sociales, algo que no pueden decir todos los municipios de Gipuzkoa. Y no solo eso, presta mas servicios que los que se contemplan en esa cartera, y eso tampoco lo pueden decir muchos municipios de nuestro entorno.

Siendo esto así, es cierto que se nos presentan importantes retos de cara a futuro que tenemos que abordar, pero creo que son retos que debemos afrontar en colaboración con otros niveles institucionales y con la implicación de todos los municipios.

Uno de esos retos es el que supone el aumento de personas en situación de calle. En los últimos años esta cifra ha ido aumentando. También han aumentado los recursos destinados a este colectivo. En el año 2023 se cifra en 3.316.355,30 euros de gasto corriente, a lo que hay que sumar casi otros 3 millones de inversión entre los años 2023 y 2024.

A dia de hoy, por ejemplo, representando el 26% de la población gipuzkoana, en servicios nocturnos para personas en situación de calle Donostia tiene el 47% de los recursos de todo el territorio.

Creo que todos somos conscientes de que los recursos del Ayuntamiento no son ilimitados, y por tanto, es imprescindible que también otros municipios y otras instituciones se comprometan en la resolución de una problemática muy compleja.

Gizarte politiken sustapenarekin konprometitua gaude eta konprometituta jarraituko dugu, gure gizartea gizarte kohesionatua izan dadin.

Apustu nagusiei aipamena eginda, Hiriak etorkizunera begira dituen erronka nagusiei heltzea gustatuko litzaidake. Eta,

Zeintzuk dira gure Hiriak dituen erronka nagusiak?

Seguruenik asko dira bizitza tokatu zaigun garai honetan Donostiak dituen erronkak. Gauza askori buruz hitz egin dezakegu, baina gaurkoan gustatuko litzaidake une honetan nire ustez garrantzitsuenak direnei dudan denbora mugatua eskaintzea.

Etxebizitza

Etxebizitza bat eskuratzeko egun dagoen zailtasuna da gure Hirian une honetan daukagun arazo nagusienetarikoa. Eta horrek eragina dauka beste aspektu askorengan. Baita Gizarte aurretik aipatu dudan kohesioarengan ere noski. Eta nola ez, gazteenek euren bizitza proiektua Donostian burutzeko dituzten aukeretan.

Egia da gure Hirian arazo hau ez dela berria, eta egia da ere gaur egun oro har etxebizitzarekin gertatzen ari denak jadanik txarra zen egoera bat okertu egiten duela. Leku askotan ikusten ari gara zeintzuk diren sortzen ari diren arazoak, eta horiek guri ere eragiten digute, zalantzarik gabe.

Bizi dugun egoera honek duen irtenbidea ez da erraza, eta seguruenik irtenbidea, balego, hori ez da gauza bakarrean oinarrituko.

Asko hitz egin da Etxebizitza Legearen inguruan azkenaldi honetan. Agian gehiegi, badirudielako arazoak Legez konpondu daitezkeela, eta hori askotan ez da horrela izaten.

Jakina da Udalbatzak hala eskatuta Donostia Gune tenkatu izendatzeko pausuak ematen ari dela. Eta horrek izango du zenbait egoeretan bere eragina, baina eragina mugatua izango da eta ez du daukagun arazoa konponduko.

Udalean gaudenez, guri dagokigu Udalak bere esku dituen tresnen inguruan aritzea. Hori da nire asmoa puntu honetan. Eta Udal batek bizi dugun egoerari eman diezaiokeen erantzunik eraginkorrena egun daukagun eskaintza handitzea delakoan nago.

Eta gu horretara gaude buru-belarri, garapen berriak hartuko dituzten guneak marrazten eta aurrera eramaten.

El acceso a la vivienda es hoy en día una de las mayores preocupaciones para los donostiarras. Si Donostia siempre ha tenido un problema con el acceso a la vivienda, el contexto actual hace que ese problema tienda a agravarse.

Al margen de otros debates, en lo que se refiere a la actuación que debe desarrollar el Ayuntamiento, considero que nuestra prioridad ha de ser la de generar nueva oferta. Oferta de diversas tipologías que den respuesta a realidades distintas haciendo un especial esfuerzo en promover vivienda protegida.

Pero creo que es importante que en este tema tengamos los pies en el suelo y huyamos de planteamientos que luego resulten ser irrealizables. Todos queremos promover el mayor número de viviendas protegidas posible, pero a la hora de hacerlo es imprescindible que siempre tengamos presente la viabilidad de las operaciones. De nada sirve poner altos porcentajes de vivienda protegida sobre el papel si luego resulta imposible materializarlos.

A la hora de tratar de dar una respuesta al problema de la vivienda en nuestra Ciudad resulta imprescindible la colaboración con el Gobierno Vasco, dado que el Gobierno tiene también competencia y responsabilidad en esta materia. De hecho, la primera reunión celebrada con un Consejero que se celebró nada más formarse el nuevo Gobierno Vasco fue precisamente con el Consejero de Vivienda y Agenda Urbana.

Con posterioridad, y en su primera comparecencia, el propio Consejero manifestó su voluntad de crear un grupo de trabajo con el Ayuntamiento para abordar la problemática de la vivienda en Donostia y las posibles iniciativas que se pudieran llevar a cabo para tratar de dar una respuesta. Esa ha sido una propuesta que desde el Gobierno municipal valoramos muy satisfactoriamente y que vamos a poner en marcha con la mayor rapidez posible.

Los desarrollos de Ciudad Jardín, el infierno, Illarra, Añorga Geltokia, la segunda parte de Txomiñenea etc. Serán una realidad en los próximos años, pero además debemos seguir trabajando en nuevos desarrollos, y creo que debemos hacerlo en paralelo a la aprobación del Nuevo Plan General, porque de lo contrario llegaremos tarde a la hora de dar una respuesta a lo que en este momento preocupa, y con razón, a nuestros conciudadanos.

He de mencionar que seguimos esperando la resolución de la Dirección General de Costas en relación a los cuarteles de Loiola. A veces no resulta sencillo entender la lentitud de un Gobierno que dice estar tan preocupado por el problema de la vivienda.

Baina garapen berriak sustatzeaz gain, beste lan ildo bat garatzen jarraitu behar dugulakoan nago. Eraikitako hiriaren eraldaketaz ari naiz.

Azken urteotan 925 etxebizitza berri sortu dira bide honetatik, 426 etxebizitzen banaketari esker eta 499 erabilera aldaketagatik (komertzialetik etxebizitzara). Horrek esan nahi du bide horretatik Inpernuak, Añorga Geltokiak eta Diario Vascok batera adina etxebizitza berri sortu direla. Bide hau indartu egin nahi dugu, eta horregatik lokalak etxebizitza bihurtzeko baldintzak lausotzea helburu izango duen Ordenantza aldaketa sustatuko dugu.

Hiri askotan une honetan mahai gainean dagoen gogoeta Donostiara ekarri nahiko nuke. Badakigu gure Hirian etxebizitza erabilera duten eraikinetan jarduera profesionalak ematen direla, eta aldiz, merkataritzara zuzendutako lokal asko erabilerarik gabe dauzkagu. Nola egin dezakegu jarduera profesional horiek merkataritza erabilerara zuzendutako lokal hutsetara mugitzeko? Honela, gaur egun jarduera ekonomikoetarako erabiltzen diren etxebizitzak merkaturatu ahal izango lirateke, eta kalean hutsik ikusten ditugun zenbait lokalek erabiliak izango lirateke. Lan ildo hau jorratu nahi dugu, hau gerta dadin errazteko zein neurri hartu ditzakegun aztertuaz.

Zalantzarik gabe legealdi honetan zehar gure jardueraren lehentasun garrantzitsuena etxebizitzarena izango da. Uste dut guztiak jabetzen garela gai honi eskaini diezaiokegun erantzunak gure Hiriaren etorkizuna baldintzatuko duela.

Segurtasuna

Nire hitzaldiaren hasieran aipatu dudan bezala, Donostiako estrategia bulegoak egindako azken inkestan segurtasunaren inguruko kezka gora egin du nabarmen gure Hirian. Egiten diren delituen datuak baina dezente gorago egin du kezka Donostian.

Ez da Donostian bakarrik gertatzen ari den gauza. Gure inguruan ere kezka hori gero eta modu nabarmenagoan azaltzen da hiritarren artean. Oso urrutira joan gabe, Errenteriak egin berri duen azken inkestan, herritarrek azaltzen duten lehen kezka hauxe bera da. Lehen aldia da inkesta batetan lehen kezka bezala hau agertzen dela han ere.

Agerian den kezka horrek erantzun bat ematea eskatzen digu, nahiz eta jakin Udal batek dituen tresnak mugatuak direla. Erantzun horretan erakunde ezberdinen arteko elkarlana sustatzea ezinbestekoa da. Hori da hain zuzen ere azken hilabeteotan egiten saiatu garena, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzarekin, Fiskaltzarekin eta Epaitegiekin batera. Gai honen konponbide posiblea Udaltzaingoa eta Ertzaintzak egin dezakeen lanaz haratago doalako.

Udaltzaingoak eta Ertzaintzak dagokien lana egiten dute, horren froga dira azken urtean eman den atxiloketa eta esku-hartze kopuruaren gorakada. Segurtasuna hobetzen jarraitzeko, beharrezkoagoa den guneetan batez ere, legealdi honetan bi komisaria berri egitea aurreikusi dugu gure Gobernu Programan. Bata Ekialdeko Barrutian eta bestea, beharrezkoena, Egia Auzoan.

Baina hemen beste arazo bat daukagu, eta uste dut garbi hitz egitea dagokigula. Inpunitate sententzioaz ari gara. Behin eta berriro delituak egiten dituzten pertsonak atxilotzen badira eta horrek ez badauka ondoriorik, azkenean badirudi ez dela ezer gertatzen delituak egiteagatik. Eta hori ez da posible.

Kezka hori Hiri askok partekatua da. Adibide bat jartzearen, orain egun gutxi irakurri nuen komunikabide batetan Bartzelonako udalak froga piloto bat abian zuela delitu anitz egiten zituztenak epaitegietan kondenatuak izan zitezten ziurtatzeko abokatu bat kontratatuta. Ez dakit hori egiteraino iritxi beharko garen, garbi dagoena da lege aldetik zerbaitek ez duela behar bezala funtzionatzen eta horri ekin egin behar zaiola dagokion lekuan.

Nuestra actitud va a ser firme a la hora de perseguir la comisión de delitos en nuestra Ciudad, poniendo para ello los medios que resulten necesarios. Pero para que el resultado sea efectivo, es imprescindible que toda la cadena posterior funcione adecuadamente sin que se den situaciones de impunidad.

Y que quede claro, sobre todo ante los intentos que estamos presenciando por parte de algunos de generar un discurso en el que se busca alentar actitudes y opiniones racistas o xenofobas, de lo que estamos hablando es de personas que delinquen y de reglas de convivencia que en esta Ciudad deben ser de obligado cumplimiento para todos y para todas, sin distinción. En el cumplimiento de las mismas pondremos todo nuestro empeño.

Turismoaren kudeaketa zuzena

Azken urteotan gure Hirian eta Udalean hizpide izan dugun gai nagusienetakoa turismoaren gaia izan da. Egia da azken urteotan, eta bereziki 2015. urtetik aurrera Donostian turismoaren jarduerak izan duen bilakaera oso azkarra izan dela. Nire ustez hori horrela izatea bi arrazoitan oinarritu dezakegu:

Lehena, aintzinetik tradizio turistiko luzea duen Hirian bere erakargarritasuna mugatzen zuen biolentzia desagertzea 2011. urtetik aurrera.

Bigarrena, mundu osoan azken urte hauetan turismoaren fenomenoak izan duen bilakaera. Ukaezina da faktore askok eraginda gure ohiturak aldatu egin direla, gehiago bidaiatzen dugula (geuk ere bai) eta Hirietako turismoa modan jarri dela. Ikustea besterik ez dago gai hau zenbait Hirietan pil-pilean dagoen gaia dela gaur egun.

Gure Hirian turismoaren fenomenoak azken urteotan izan duen aldaketaren ondorioz, Udalak erabat aldatu du turismoaren inguruan izan duen jarduera. Orain dela hamar urteko Turismo planek jende gehiago erakartzeaz hitz egiten bazuten, gerora egin direnak ez dute horretaz hitz egiten, daukaguna eta garena zaintzeaz baizik.

Eta helburu horrek ikuspegia aldatzea ekarri du, Udalak bere ardura ezberdinetan zeregina duelako helburu hori lortzen saiatzeko. Beraz, turismoaren kudeaketa ez da Turismo Sozietatearen zeregin nagusia soilik, Udal osoarena baizik.

Helburua delako hiriaren turismo estrategia hiriaren garapenaren estrategiarekin uztartzea. Ez da lan erraza, baina aspaldi gaude horretan buru belarri lanean.

Como digo, el objetivo de Ciudad que perseguimos desde hace ya tiempo es el de alinear la estrategia turística de la ciudad con la estrategia de desarrollo de la Ciudad. De ese modo, la gestión del destino se convierte en mas importante que la promoción del mismo.

Este Gobierno lleva años tomando medidas que buscan ese objetivo, algo por lo que este Ayuntamiento es reconocido en los foros en los que participa. La primera de las medidas adoptadas fue la de declarar la parte vieja zona saturada de alojamientos turísticos en 2017 y aprobar una regulación específica para las Viviendas de Uso turístico. Tras estas decisiones vino la de establecer la obligación de tramitar un plan especial para convertir edificios residenciales en hotel. Y la última fue la moratoria a la concesión de nuevas licencias que sigue estando en vigor y que finalizará cuando aprobemos definitivamente la modificación del Plan General que restringirá notablemente la posibilidad de nuevos alojamientos en toda la Ciudad y lo impedirá totalmente en el residencial.

Y todas estas decisiones han tenido sus efectos. Por ejemplo, en el debate que hoy existe sobre el tema de la vivienda relacionado con los pisos de uso turístico, podemos comprobar que la evolución de este fenómeno en Donostia es inversa a la registrada por los municipios en los que este debate está adquiriendo gran protagonismo. Los informes que realiza exceltur lo constatan claramente.

Baina turismoaren kudeaketaz hitz egiterakoan ez gara ostatuen erregulazioaz bakarrik ari. Ikuspegi zabalagoa izan behar dugu. Zabalagoa eta partekatua. Horretan lagungarri izango zaigu talde guztiek osatzen dugun Batzorde berezia.

Bost lan ildo jorratu behar ditugu arestian aipatutako helburu hori lortzen saiatzeko.

1.- Fluxuen banaketa hobea lortzea. Datorkigun bisitari kopurua kontuan izanda, bixitari gehien jasaten dituzten guneak arintzea izango litzateke helburua, hainbat ekimen hiriaren beste gune batzuetara mugituz.

2.- Hiritarrek turismoak sortzen dituen onurak hobeto ikusi ditzaten baliatzea. Etxebizitzaren eskaintza eta jarduera turistikoaren arteko lotura erabat etenaz. Hori da hain zuzen ere orain arte hartu ditugun neurrien arrazoa, alegia, ez daitezela etxebizitzak izan behar direnak turismo jardueretara bideratu. Hori jadanik ez da posible gaur egun, eta ez da posible izango etorkizunean ere. Bestalde, turismo “tasa” deritzona ere tresna baliagarria izan daitekeelakoan gaude, Udalarentzat Hiria hobetzeko tresna den neurrian. Eta hor, adierazi beharra daukat gure jarrera argia dela, bide horretatik etorriko diren baliabideak Hiria hobetzeko izan behar dute, eta beraz, Udalak bildu behar ditu.

Atal honen barruan aipatu nahiko nituzke ere une honetan Turismo bulego berria moldatzeko egiten ari diren lanak. Jakina da obrak hasi zirenetik aldaketa bat egitea planteatu genuela. Horrek lanak atzeratu egin ditu. Espero dut datorren urtearen hasieran amaituak izango direla. Egindako aldaketaren arrazoieta bat da Udalaren gune horri beste izaera bat ematea. Bertan izango diren gune nagusiak Hiritarrei harreta eskaintzeko guneak izango dira. Hor txertatuko da turismo bulego berria. Ez turistentzako bakarrik, donostiarrentzako erreferentzia puntu izan nahi du puntu horrek, Hiriak duen eskaintza guztiok gozatzeko eskaintza baita.

3.- Eguneroko bizikidetzeta hobetzea. Datuei erreparatzen badiegu segituan konturatuko gara gaur egun bertan lo egiten dutenak baino bisitari gehiago izaten dituela Donostiak. Hain zuzen ere, dauzkagun zenbakien arabera ikusi dezakegu Donostiara datorren %60a eguna pasatzera datorrela, ez bertan gelditzera. Eta horri erantzun egokia emateko ez da nahikoa Hiriak daukan ostatu gaitasuna mugatzea. Azken urteotan indarra hartu duen fenomeno horrek beste neurri batzuk hartzea eskatzen digu. Adibidez, mugikortasunari dagokionean, garraio publikoa indartzea eta aldirietako aparkalekuen aldeko apustu sendoa egitea. Baina ba dira hobetu beharreko beste gauza batzuek, adibidez zaborren kudeaketa edo hartu beharreko zarataren aurkako neurriak. Helburu hau lortzen saiatzea izan da bisitari taldeen kopurua mugatzeko hartutako ekimena.

4.- Bada ere gure artean turismoak eragin dezakeen nortasun galtze baten beldurra. Azkenaldi honetan badirudi gure beldur guztiak turismoaren bizkarrean jartzeko joera hartu dugula, eta hori ez da horrela. Ba dira horretan eragina duten beste hainbat faktore, tartean globalizazioarena. Edonola ere, Donostiaren esentzia, izaera, bizitza estiloa edo tradizioak babesteko lana egin nahi dugu, gure Hiriaren euskal izaera zainduz. Hori bilatuko dugu hiriaren kokatzeari dagokionean, bertako produktua sustatuz eta bertako merkataritza zainduz adibidez. Eta noski gure hizkuntza den euskararen aldeko apustua eginez.

5.- Gutxieneko adostasunak lortzen saiatzea. Helburu horrekin Udalean lanean diharduten departamentu eta maila guztien inplikazioa bilatzea ezinbestekoa delakoan nago. Baita ahalik eta adostasun politiko zabalenak lortzen saiatzea ere, hiritarren partaidetza sustatuz. Uste dut Hiri gai garrantzitsu baten aurrean gaudela, eta horrek guztion esku-hartzea eskatzen du.

Klima aldaketa

Erronka hau une honetan gizateriak duen erronkarik handienetakoa izango da ezbairik gabe. Ezinbestekoa da gure Hiriak erronka honen aurrean bere ekarpena egitea. Horretarako Udalak duen tresna nagusia DSS Klima 2050 Ekintza Plana da. Bertan jasotzen dira hurrengo urteetan gure Hiriak eman nahi dituen pausuak.

Gustatuko litzaidake horietako zenbait gaurkoan aipatzea.

En concreto me gustaría detenerme en dos cuestiones de especial relevancia en lo que es nuestra aportación en la lucha contra el cambio climático. La generación de energía y la movilidad.

Lo que hagamos en estas materias resultará clave si queremos cumplir con el compromiso por la salud del planeta. Y no todo lo que hay que hacer está en manos de este Ayuntamiento, pero nos toca aportar nuestro grano de arena.

Somos enormemente dependientes de los combustibles fósiles. Y esa es una situación que debemos abordar y superar. Concretamente en lo que al Ayuntamiento se refiere, además de fijar objetivos de reducción de consumos de energía, La ley de sostenibilidad energética de Euskadi establece en su artículo 17.3 que “Cada administración pública vasca deberá lograr para el año 2030 que, en el conjunto de sus edificios, disponga de instalaciones de aprovechamiento de energías renovables

suficientes para abastecer el 32% del consumo de la citada administración, incluyendo tanto sistemas de aprovechamiento térmico como de generación eléctrica. “. Con ese objetivo estamos trabajando intensamente en nuestros edificios, ejecutando proyectos que buscan lograr ese objetivo. Y en el tiempo que nos queda, tendremos que hacerlo de forma intensa, porque no resulta un objetivo fácil de alcanzar.

He hablado ya de movilidad, y de la clara apuesta que hace este Gobierno municipal por el transporte ferroviario como modo de transporte sostenible.

Pero otra de las grandes transformaciones en las que estamos inmersos en este momento es el de la electrificación de nuestra flota de autobuses. Esto representa una enorme inversión. Hemos abordado la electrificación de las cocheras de Marrutxipi como paso previo a la renovación de la flota. De nada serviría adquirir autobuses eléctricos si luego no tuvieramos dónde cargarlos. Toda esta operación tiene un coste total de mas de 98 millones de euros, de los cuales a día de hoy únicamente 20,5 millones de euros serán financiados por subvenciones. Lo menciono porque publicamente parece que estas inversiones van a ser financiadas por fondos Next, y en la realidad eso no es así. La mayor parte del esfuerzo lo va a tener que realizar el propio Ayuntamiento. Entre 2024 y 2025, tras la electrificación de las cocheras, se procederá a la sustitución de 43 autobuses, por autobuses eléctricos, que han contado con la ayuda de subvenciones pero cuya financiación correrá a cargo mayoritariamente de recursos municipales.

Eta esfortzu hau egiten jarraitu beharko dugu hurrengo urteetan ere. Ez dizuet ukatuko, Udalarentzat horrek suposatzen duena kezkatu egiten nauela. Garraio publikoaren tarifen inguruan azken urteotan hartu diren erabakiek oso eragin handia izan dute Udalarengan, eta jakinda zein den aurrean daukagun erronka, uste dut tarifen inguruan hartu beharreko erabakiak tentuz hartu behar direla.

Ulergarria da horiek ahalik eta lehiakorren izan daitezela guztiok nahi izatea, baina ezin dugu bistatik galdu zerbitzuaren beraren iraunkortasun ekonomikoa. Horregatik diot erabakiak tentuz hartu behar direla tarifen inguruan, eta hartu beharreko erabakiak batez ere beharrik handiena duten pertsonen laguntzea izan behar dute helburu, egun dagoen eskaintza iraunkorra izango dela bermatuz.

Laster onartuko dugu emisio gutxiko eremua ezartzen duen ordenantza. Honetaz urte honetan luze jarduteko aukera izan dugu.

Bai Udal honetan gauden taldeek, eta baita hiritarrek ere prozesuan parte hartzeko aukera izan dugu. Datorren urtean indarrean jarriko da definituta dagoen emisio gutxiko eremua. Gure asmoa da urteko lehen bi hilabeteak ikasteko epe gisa erabiltzea, guztiok egoera berrira ohitu gaitezen.

Uste dut hilabete hauetan egindako lana ondo egindako lana izan dela. Eta lortutako emaitza orekatua. Azken finean, guztiok dakigu erabaki hau legeak behartutako erabakia dela. Baina ba da ere Hiri bezala hobetzea ekarri dezakeen erabakia. Horrela ikusten dut nik. Eta hori egiterakoan garrantzitsua da onura eta eragozpenen artean oreka mantentzen saiatzea. Eta zinez uste dut hala egin dugula. Onartu dugun eremuak eta arautzen duen ordenantzak oreka bilatu dute. Batetik, bertan ematen diren isuriak hobetzeko, eta bestetik, hiritarrei ahalik eta eragozpen gutxien eragiteko. Aldaketak ez dira sekula errazak izaten, baina hobetzeko bada beharrezkoa da hauek egitea.

Aldaketa klimatikoak eraginda etorkizunean datorkigun egoera erronka handia da gure hiriarentzat. Honen aurka borrokatzeko konpromisoaz gain, beharrezkoa izango zaigu honek eragingo dituen eraginak kudeatzea eta ulertzea. Hiria prestatu beharrean gaude horien aurrean. Eraginak sumatzen hasiak gara jada, eta zientzilariek diotena beteko bada, horretan ere gure Hiriak egokitzen ikasi beharko du.

Gero eta sarriagoak diren muturreko meteorologia fenomenoak edo itsasoaren mailaren igoera dira horietako batzuek, eta horretarako prestatu egin beharko gara, horien aurrean izan dezakegun jasateko gaitasuna hobetuaz eta gure azpiegiturak errealitate berri horretara egokituaz.

Baina aldaketak ez dira soilik fisikoak izango. Behin eta berriro esaten da adibidez turismoaren portaeran aldaketa eragiten duela aldaketa klimatikoak, alegia mediterraneotik Kantauri aldera mugitzeko joera ikusten ari dela. Eta horrek presio handiagoa eragin dezakeela gurea. Eta ez hori bakarrik, baita bizilekua aukeratzerako orduan aldaketa klimatikoak aldaketak ekarri ditzake, gure ingurua erakargarriagoak bilakatuz eta ondorioz etxebizitzaren eskarian handiagotuz.

Ate joka dauzkagun hipotesiak dira hauek, kontuan hartu beharko ditugunak 2030 urtera begira eraiki nahi dugun Donostiari buruz hitz egiterakoan. Izango dugu seguruenik horietaz eta beste gauza askori buruz hitz egiteko eta eztabaidatzeko aukera. Gustatuko litzaidakeena da hori egiterakoan guztiok jabetzea aldaketa azkar batean murgildutako mundu batean bizi garela eta horrek, gustatu hala ez, gure Hiriari asko eragiten diola.

Gogoeta honi lotu nahiko nioke gaurko agerraldi honen azken atala, azkar aldatzen ari den mundu baten inguruko gogoetari. Uste dudalako inoiz baino garrantzitsuagoa dela gaur partekatzen ditugun balioen aldeko aldarrikapena egitea.

3.- Balioen Hiria. Inoiz baino beharrezkoagoa den erronka.

Munduan gertatzen ari denari erreparatzen diogunean edo gure inguru hurbilean gertatzen denari erreparatzen diogunean iruditzen zait gauza ukigarriez edo proiektu zehatzez haratago, gaur inoiz baino beharrezkoagoa suertatzen dela Donostiak balioen hiria izan behar duela aldarrikatzea.

2016. urtean Kultura Hiriburu izan ginenean “Elkar bizitzeko kultura” leloa erabiltzen genuen. Eta gaur, inoiz baino beharrezkoa da lelo hori gurera ekartzea.

Badirudi batzuetan etsipenean edo nostalgian erortzen diren mezuak gailentzen direla gure artean. Ni ez nator bat horrekin, uste dut gure etorkizuna, arazoak arazo, esperantzaz betea dagoen etorkizuna dela. Baina horrek eskatuko digu egun ikusten ari garen hainbat gauzen aurrean gure balioak berreskuratzea.

Norberekeriaren aurrean komunitate izaera defendatuz. La sociedad en la que vivimos es una sociedad cada vez mas individualista. En ocasiones resulta difícil poder identificar el bien común y trabajar en aras a defenderlo. Debemos ser capaces de generar conciencia de comunidad, reforzando valores como la generosidad y la solidaridad.

Donostia cuenta con una amplia red de organizaciones que trabajan en distintos ámbitos como el cultural, el social o el deportivo. Es importante reforzar ese tejido, y trabajar con ellos de la mano para generar esa conciencia de bien común que nos une y que nos hace avanzar como Ciudad.

Iniciativas como Donostia Lagunkoia o Auzo Mahaia son iniciativas en las que debemos seguir apostando desde el Ayuntamiento. La participación ciudad es un instrumento fundamental a la hora de construir comunidad en Donostia.

Horiek guztiak indartzea beharrezkoa zaigu bizikidetzan aurrera egingo duen Hiria eraiki nahi badugu.

Demokraziaren aldeko aldarrikapena eginez. Azken urte hauetan Europan eta oro har munduan gertatzen ari den demokraziaren ahultzeak eragin egiten gaitu.

Geroz eta ugariagoak diren populismoek arriskuan jartzen dute hamarkadetan lortutakoa. Eta Donostia ez dago arrisku horretatik kanpo.

Inoiz baino beharrezkoagoa da gaur gurean demokraziaren balioak aldarrikatzea, Bide horretan Udalak ere ba dauka bere zeregina. Bizi dugun egoerak hiritarrek erakundeak urrutiago sentitzea ekarri du, eta hori arriskutsua da.

Hori horrela izan ez dadin, gure jarduera gardena eta zuzena izan behar du. Adierazle objetiboei erreparatzen badiegu, une honetan Donostiako Udalak ondo betetzen ditu horiek, rankingaren lehen postuetan gaudelarik. Baina hori ez da nahikoa. Adierazleetaz haratago, hiritarrei Udalak egiten duena eta hartzen dituen erabakien zergatia azaltzen esfortzu berezi egitea dagokigu.

Azken urteetan Udalak hiritarrekin dituen harremanetan aurrera pausu nabarmenak eman dira ere, hala adierazten dute Iradokizun eta Kexa batzordeak urtero egiten dituzten txostenak. Hala ere, esparru honetan badaukagu hobetzeko tarte. Erantzunetan 100%era iritxi behar dugu, eta erantzunen edukia hobetu.

Hiritarrekin harremanean lagungarri izango zaigu datorren urtean erakin honetan bertan zabalduko den Udalinfo bulego berria ere.

Debemos hacer por tanto un especial esfuerzo por acercar la labor de nuestro Ayuntamiento a la ciudadanía. Existe sin embargo un fenómeno peligroso que durante los últimos años ha proliferado de la mano de las redes sociales y que también nos ha llegado. Es el de la proliferación de las fake news y de los bulos. Se trata de un fenómeno peligroso que socaba la credibilidad de las Instituciones y que debemos combatir.

A los representantes políticos nos corresponde también comportarnos de forma adecuada. Por ello estamos trabajando en la aprobación de sendos códigos éticos, tanto para los representantes políticos como para el resto de servidores públicos del Ayuntamiento.

Finalmente, me gustaría también hacer referencia al modo en el que actuamos e interactuamos entre nosotros. Creo sinceramente que en los últimos años nuestro Ayuntamiento ha sido un ejemplo de convivencia. A pesar de las diferencias, en la mayoría de las ocasiones hemos sabido discrepar y debatir desde el respeto. En democracia, la diversidad de opiniones nos enriquece, los debates sobre temas que afectan a nuestra Ciudad son buenos. Sin embargo estamos observando a nuestro alrededor la degradación del debate político, con formas y discursos en los que el respeto mutuo brilla por su ausencia. No me

gustaría que eso llegara a nuestro Ayuntamiento, sería la peor aportación que podríamos hacerle a la democracia y a la convivencia en Donostia.

Bizikidetzarako oinarri gisa guztion Giza Eskubideak defendatuz. Donostiako Udalak urte luzeetan egin du aldarrikapen honen alde. Bakearen eta Giza eskubideen etxearen proiektua horren adierazkagarri delarik. Uste dut esparru horretan lanean jarraitu beharra daukagula, Giza Eskubideen defentsan alde lanean.

Giza Eskubideen Batzordea horretarako tresna bikaina da. Bertan guztiok partekatzen ditugulako gure ikuspegiak, eta bertan sortzen direlako ekimen ezberdinak.

Memoria historikoaren esparruan, memoria historikoaren aholku batzordearen laguntzaz, aurrera pausuak ematen jarraituko dugu. Baita ere memoria hurbilaren esparruari dagokionean, terrorismoaren eta biolentziaren biktimei zor diegun errekonozimenduaren bidean Aurrera pausuak ematen.

Eta guztia helburu argi batekin: Bizikidetzan Aurrera pausuak ematen jarraitzea, Giza Eskubideak gure bizikidetzaren erdigunean jarriz.

AMAIERA

Gaurko politika orokorreko adierazpena amaitzera noa, Gai asko daude hemen esandakoetaz haratago gure artean partekatu ditzakegunak. Eta izango dugu, orain arte egin izan dugun bezala horietaz jarduteko aukera.

Gaurkoan Hirian hizpide diren gai nagusienak aukeratu ditut, Hiritarren kezka nagusiak direnak, horiek gure erantzuna eta ekimena eskatzen dutelakoan.

Voy a terminar. Al margen otros muchos temas que también son importantes para nuestra Ciudad, en esta intervención he tratado de centrarme en aquellos que en estos momentos suscitan el mayor interés o preocupación por parte de los donostiarras. Son temas que considero merecen nuestra atención y acción. Y es mi voluntad que podamos hacerlo de forma compartida, colaborando por construir una Ciudad mejor haciendo frente a los principales retos que tenemos ante nosotros.

Azken finean hori da gu guztion betebeharra eta ardua, gure Hiria Hiri hobea egitea, eta bide horretan guztiok egin dezakegu gure ekarpena.

Eskerrikasko.